

EMIGRAR Y BUSCAR REFUGIO: UN DERECHO DE TODAS LAS PERSONAS

GERRA ETA POBREZIATIK IHESI DATOZENEKIN ELKARTASUNA

ERMUA 2015

Abendua / Diciembre



Egitaraua

Abenduak 16 asteazkena

HITZALDIA: “**El desbocamiento del capitalismo y la sociedad del miedo: el mercantilismo de la guerra permanente y sus efectos sociales**”

CÉSAR MANZANOS, soziologoa, UPV-EHU-ko irakaslea


19:30 - Lobiano



Abenduak 17 osteguna

ZINE-KLUBA: “**Dheepan**”, Jacques Audiard-ena (Frantzia- 2015).
Proiektzioaren amaieran ZINE FORUMa izango da, ZINHEZBA elkarteak zuzendua

20:30 - Ermua Antzokia, Mudo-Drogot-en laguntzaz



Abenduaren 14tik 30era

ARGAZKI ERAKUSKETA: “**Siria: Begiradak erbestetik**”, hainbat foto-argazkilariekin: Olmo Calvo, Alicia Armesto, Bou Aguiló, Monica Parra, Manuel González eta Roberto Astorgano

18:00 - 20:00 - Lobiano

Antolatzaileak

Eguarbitza MisioTaldea
Komite Internazionalistak
Caritas
Plataforma de Amig@s del Pueblo Saharaui- Hagunia
Urko-Punta
Maishule
ASER-Asociación de Senegaleses de Ermua
PAACE- Ermuko afrikarren Elkartea

Laguntzaileak

Mudo-Drogot
SOS Arrazakeria

Babeslea



Ayuntamiento de Ermua
Ermuko Udala



NAZIOARTEKO BABESA NAHI DUTE

Zer aurkitzen dute?

Ehunka mila lagun noraezean Europako bideetan, errepideetan eta trenbideetan zehar, EBk hona etor daitezen ezarritako oztopo guztien gainetik bizirauten duten pertsonak. Atzean geratu dira itotako emakume, gizon eta haurren milaka gorpu, hondartzetara jaurtiak, normalean turistek beteriko hondartzetara, lortu ez zuten horien gorpuak... EBk parez pare dauka gorroto duen irudia. EBri, gainerako herrialdeei Giza Eskubideen gaineko lezioak ematen ari zenari, mozorroa erortzen ari zaio,


eta bere benetako aurpegia erakusten ari da. Ez du hunkitzen gurera iristen ari direnen dramak, nahiz eta haiek hartzera behartuta egon Giza Eskubideen gainean sinaturiko hitzarmen eta itunen arabera. Drama da etxeko sukalderraino sartu zaizkigula eta hortxe zailagoa dela tranpak egiten segitzea. Nola heldu gara egoera honetara? Nor dira hona etortzen ari diren horiek? Zein erantzun ematen ari dira erakundeak eta gizarte zibila?

NOR DIRA

Siriako jendea, Irak, Eritrea, Mali, Niger, Afganistan, Pakistangoa, Sirian zeuden iheslarien esparruetakoa... mendebaldeko potentzien esku-hartzeak hainbat tirania eta fundamentalismoren biztanleria biktimen arazoei konponbideak ematen lagundu ez zuen hainbeste tokitakoak.

Alderantziz, potentzia horien interes ekonomiko, politiko eta estrategikoen zerbitzura egongo ziren gobernuen bilaketak milioika lagun kanporatu izan ditu herrialde horietatik.

Atzo bertara arte, pertsonen mugimendu horiek estatistika hutsak edo gertakarien orrialdeetako kontua ziren. Baina gaur hemen daude, bizitza jokatu dute, hitzez hitz, eta beren herrialdeetatik kanporaturiko milioika lagun kopuru txiki bat eskaera egiten ari zaio EBri bere eratze-itunek eskaintzen duten babesa berma dezan.



EUROPAKO BATASUNAREN ERANTZUNA

EBk hamarkadak daramatza egoera hau saihesten saiatzen. Baina ez eskubide horiek errespetatzeko eta bere ahalmenen arabera harreraren-lana egiteko bidetik. Ez horixe; EBk kontrako norabidea hautatu zuen: Europa Gotorlekua eraikitzea, berak aukeraturikoei baino ez diena uzten sartzen. Turistei, noski, dirua uzten dutenei. Finantzen arloko eta sare mafiosoetako pertsonen, dirutzak zuritzen dituztenei. Sasi-diktadoreei eta beren senideei, herrialde horietan EBren interesak babesten dituztenei. Babes-bila dabilzan zenbait norbanakori, ez dagoelako beste erremediorik. Eta prestakuntza-maila handiko lagunei, prestakuntza hori ahalbidetu zieten herrialdeen deskapitalizazioa bultzatuta.

Gainerakoentzat, nazioarteko babes-bila dabilzanentzat edo beren herrialdeetatik arrazoi ekonomikoengatik, sozialengatik edo bizirauteko kanporatuak izan direnentzat, kontrol-operazio izugarria eraiki du (Shengen Informazio Sistema, Europol, Eurodac, RABIT...), Frontex jarrita ekintza horietako asko dinamizatzeko eta koordinatzeko

Agentzia arduradun. Hala, bata bestearen atzetik ikusi ditugu operazio polizial/militarrak, izen klasikoekin izendatuta: *INDALO, MINERVA, MOS MAIORUM, TRITÓN, SOPHIA* Operazioa, guztiak hainbat Estaturen bitarteko polizial eta militarrek koordinatzen eta prestatzen bideratuak, lege kanpoko egoeran dauden etorkinak kontrolatzeko eta ezaugarri etnikoen bidez ezagutzeko eta erregistratzeko edo hona sar daitezen eragotzeko.

Emaita: Mediterranea planetako hobi komun handiena bihurtua, 22.394 lagun bertan itota, UNITEDen erroldaren arabera.

EBK, nahi ez dituenak bertara irits daitezen eragotzeko porrot egindako saiakeran, **13 mila milioi euroko diru-kopuru sinestezina xahutu du 2000. urtetik.**

Opil goxo horretatik industria militarreko lobby ugari elikatzen dira, eta bertatik banatzen zaie dagokien dirua administrazioei eta hainbat usteli.

HEMEN DAUDE

EBk jada hemen daudenei eskaintzen dien ikuskizuna nahikoa da bere horretan, ez da inolako azterketarik behar. Hesiak, alanbre-hesiak, polizia-txakurrak, militarrek... eta dagoeneko antolatu dute estrategia bat beren asilo-eskaerak izapidetzea onartu beste erremediorik eragingo ez dioten pertsonak (Siria, Irak, Eritrea) **“iragazteko” eta “migratzaile ekonomiko” izendatzen dituen hainbat ehunka mila lagun**en kanporaketa legitimatzeko.

Horretarako, **“hotspots”** edo **“gune beroak”** direlakoak sortzea erabaki du, pertsonak kontrolatzeko, esparruetan izateko eta kanporatzeko bestelako neurrigisa. Kontzentrazio-esparruak dakartzate gogora, Europako historia gertuko oroitzen penagarri horiek, eta hainbat helburu dituzte: batetik, hona iristen ari diren

zenbaiten asilo-eskaerak izapidetzea onartzearen truke legitimatzea ehunka mila pertsonaren kanporaketa masiboa, pertsonok Frontexek iragazita eta etorkin ekonomiko deklaratuak; bestetik, asilo-politikak esternalizatzea, hots, asiloa ematea bakarrik jatorrizko edo igarotzeko herrialdeetan sorturiko iheslarien esparruetatik datozeniei (egungo kasua dira Libanoko, Turkiako, Tunisiako... iheslarien esparruak).

Horretarako, dagozkien pizgarriak eskainiko zaizkie herrialde horiei, jada hainbat milioi desplazatu jasotzen dituztenei, ez diezaieten utzi irteten EBra iristeko ahaleginean dabiltzanei edo konpromisoa har dezaten handik igarotakoak berriz onartzeko. Turkiako kasua da argiena eta denboran gertuena



ETA HARRERARI BURUZ?

Nolanahi ere legeak behartu egiten dituenaz Estatuak bertara iritsitako lagun ugariren asilo-eskaerak aztertzea, adierazpen eta bileren egundoko ikuskizuna antolatu dute maila gorenean; horrek, itxuraz, harreraren nolabaiteko banaketa eskaintzen zuen herrialde kideen artean. Praktikan, balio izan du jarrera xenofoboak dituzten herrialdeetan jarrerok areagotzeko, eta ezgai izaten ari dira urrats bat bera ere

emateko **160.000** lagun birkokatze hartutako konpromisoa betetzeko.

Akordioa egin eta hil batzuk igarota, 135 pertsona baino ez dira izan “zortedunak” Europa osoan. Euskadira, berriz, hiru(!) heldu dira.

JENDARTE SOLIDARIOA

Jokabide hori Euskal Herriko, Espainiako eta Europako hiri ugarietan sorturiko elkartasunaren guztiz bestelakoa da. Beste behin, frogatuta geratu da **gizartean baliabide asko dagoela aktibatzen prest heriotzara, esplotaziora edota gosera inor ez kondenatzeko gure betebeharrak morala betetzeko.**

Aukera paregabea dugu, egoera larri hau baliatuta, eragile politiko gisa jokatzeko eta gure gobernuari exijitzeko benetan **errespetatu ditzaten** ehunka

mila pertsona horien eskubideak, sentsibilizazio-kanpainak burutuz eta gure buruak aktibatuz jada gure herri eta hirietan dauden aurrean, telebistan ikusten ditugun egoeretan eta antzeko gabeziekin bizi diren horien aurrean, hain zuzen ere.

